



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO APIRILAREN 17KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2015.04.17.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn. (4. puntuan sartu da).

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-2014ko kontuen aldeko txostena.
- 3.-Hondatutako hainbat bide moldatzeko diru laguntza eskaera.
- 4.-Apita alderdiko pista moldatzeko esleitzeko aurkeztutako alegazioa.
- 5.-Pelle Tiki-ko matrikulazio epea.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2015eko martxoaren 24an eta 2014 martxoaren 30ean egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

2.-2014KO KONTUEN ALDEKO TXOSTENA.

Ikusirik 2014ko ekitaldiko kontuen espedientea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1)2014ko ekitaldiko kontuen espedienteari aldeko txostena ematea.
- 2)Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, iragarki hau herriko taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

3.-HONDATUTAKO HAINBAT BIDE MOLDATZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik 2015eko urtarrila eta martxoan izandako eurien ondorioz hainbat baserrien bideak hondatu direla, Basarteak egindako proiektuan bildu diren moduan (Aientsa auzoko bidea eta Bordalarrea auzoko bidea).

Kontuan hartuz obra 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana eta, konkretuki, 5/2009 Foru dekretua, urtarrilaren 19koa, 2009-2013 aldirako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duena.

Kontuan hartuz epe laburretan egin beharreko obrak direla bide publikoak, eta konkretuki, jendea iraunkorki bizi den populazioguneei sarbidea emateko aurreikusitako obrak, aipatutako bide horiek hobetzeko obrak eta udalaren edo kontzejuauren eskumeneko zerbitzuei lotutako horniduretara iristeko erabiltzen diren herri bideak hobetzekoak, egoera txarrean egoteaz gain, horniduretara iristeko beste bide egokirik ez badago.

16/2008 Foru legearen 14. artikuluan aurreikusten den moduan toki azpiegiturak konpondu edo berritzeko obrak larrialdikotzat jotzen direnean, toki entitateek Nafarroako tributuen parte hartzeko funtsaren kargura finantzatu ahal izanen dira, Toki Administrazioiko Departamentuak emanen duen ebazpenaren bidez. Ebazpen horretan gastu konpromisoa finkatuko du. Toki entitateek eskabidea aurkeztu beharko du horretarako larrialdia zergatik sortzen den azaltzen duen ziurtagiriarekin batera. Halaber, egin behar den gastua adierazi behar du eta erregelamendu honen 39. artikuluan aipatutako agiriak aurkeztu beharko ditu, salbuespenezko araubidea eskazten badu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Basartea enpresak egindako proiektuan bildutako bideen kalteak moldatzea larrialdikotzat jotzea.
- 2) Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioiko Departamentuari 2009-2012 Toki Inbertsioen Planean sartzeko eta dagokion diru laguntza emateko eskatzea.

4.-APITA ALDERDIKO PISTA MOLDATZEKO ESLEITZEKO AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA.

Arantzako Udalak hainbat mendiko lanak egin nahi ditu Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, Apittako pista moldatzea, bertzeak bertze.

Lan horien aurrekontua 5.449,26 euroko da, BEZ barne.

Gonbidapenak bidali dira Sasoi eraikuntzak S.L., Mikel Ubiria S.L., Pello Aginaga Macicior, Javier Alzugaray Hondaketa eta Garraio Lanak S.L.U. eta Mikel Telletxea Juanena enpresei.

Ikusirik gonbidatu eta aurkeztutako enpresen proposamenak:

-Mikel Telletxea Juanena: 3.914,00 euro, BEZ barne.

-Sasoi eraikuntzak S.L.: 5.176,79 euro, BEZ barne.

-Mikel Ubiria S.L.: 3.206,50 euro, BEZ barne.

-Peio Aginaga Macicior: 4.791,60 euro, BEZ barne.

-Javier Alzugaray S.L.U.: 3.500,00 euro, BEZ barne.

Mikel Ubiria S.L. enpresaren proposamena % 41,15ko baja suposatzen du.

Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 91. artikulua arabera:



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

“Lizitazio prozedura batean kontratuko prestazioekin alderatuta baxuegia dirudien eskaintzaren bat aurkezten bada (kontratuaren balio zenbatetsia baino ehuneko hogeita hamar txikiagoa bada), itxura batean behar bezala bete ezin dena, administrazioak, eskaintza hori baztertu aurretik, jakinaren gainean jarriko ditu ukitutako lizitatuak guztiak, bost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten”.

Kontuan hartuz Udal honek 6/2006 Foru Legea aplikatzen duela eta ez duela kontratua arautzeko beste baldintzerik adierazi.

Alkatearen 23/2015 ebazpenaren bidez ebatzi zuen Mikel Ubiria S.L. enpresaren proposamena bertze enpresei jakinaraztea bost eguneko epea (2015eko apirilaren 13a arte) emanaz alegazioak egiteko.

Epe horren barne Peio Aginaga Mazizior enpresak aurkeztu du alegazioa; bertan, argudiatzen du horrelako jarrerak bidegabeko lehia suposa dezakela baino ez du justifikatzen lana ezin dela burutu kopuru horretan.

Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 91. artikulua arabera, aurkeztutako eskaintza onartzea zilegi izanen da besteak beste inguruabar hauek tarteko direnean: a) Eraikitzeo, produktuak fabrikatzeko edo zerbitzuak emateko erabiliko den prozedurak bidea ematea aurrezteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Peio Aginaga Mazizior enpresaren alegazioa ez onartzea.

2) Mikel Ubiria S.L. enpresari Apittako bidea moldatzeko lanak esleitzea, 3.206,50 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

2) Mikel Ubiria S.L. enpresari lanen % 4ko fidantza aurkeztu behar duela jakinaraztea lanak hasi baino lehen eta lanak 2015eko maiatzaren 8rako eginak egon behar dutela.

3) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

5.-PELLE TTIKI-KO MATRIKULAZIO EPEA.

Kolbobike Gorostiza andreak adierazi du Pelle Ttiki-ko matrikulazio epean 6 haur izena eman dutela hurrengo ikasturterako.

Planteatu da hileko kuota aldatzea izen ematen den arabera. Proposatuta da kuota desberdina izatea irailatik uztaila edota martxotik uztailara.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hileko kuota 130,00 euroko izatea.

2) Martxotik uztailara matrikulatzen diren haurrak hilabete bat gehiago ordaintzea.

6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 23. ebazpenetik 28. ebazpena arte).

7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

8.-SIMON ITURRIA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Simon Iturria Alzuri jaunak, Apitta alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (erdia matarrasa egiteko eta gainerakoa kimatu eta garbitzeko, 1. poligonoko 273., 274. eta 275. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

9.-JOSE ANTONIO BEREAU MACICIOR JAUNA ETA M. JESUS ECHEVERRIA AGESTA ANDREAREN IDATZIA.

Irakurri da Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak aurkeztutako idatzia, Larretako bideari buruz. Bertan adierazten dute ados daudela ordezko bidea irekitzeko orduan 1,5 metroko zabaltasuna uztea baino ez Udalak izandako gastuak euren kargu hartzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek 2014ko azaroaren 6an eta 2015eko martxoaren 6an egindako bileretan hartutako akordioak berrestea, hau da, Udalak orain arte egindako gastuak euren kargu hartzea eta bidearen zabaltasuna 1,5 metrokoa izan behar duela jakinaraztea.

2) Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreaki jakinaraztea bi baldintzak prozedura segitzeko bete behar direla eta horren adostasuna adierazteko 2015eko maiatzaren 13a arteko epea ematen zaiela. Horiek ez badira onartzen hasitako mugaketa espedientearekin jarraituko dela ohartaraztea.

10.-PILI LARRETXEAK ERRANDONEA ANDREAREN IDATZIA.

Ikusirik Pili Larretxea Errandonea andreak aurkeztutako idatzia, non eskatzen duen Goiko Karrikan jarritako 2 zabor ontzi kentzea bere etxeko bodegaren atearen ondoan jarri direlako, traba egiten dutelako eta ez direlako behar bertze zabor ontziak ondoan daudelako.

Kontuan hartuz jarritako puntua publikoa dela

Aho batez, ERABAKI DUTE.

1) Pili Larretxea Errandonea andreak eskatutako 2 zabor ontziak ez kentzea aipatutako arrazoiarengatik.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea.

